



«Berdintasunak gizonago egiten zaitu»

**Euskal Autonomia Erkidegoan gizonak sexuen arteko
berdintasunaren alde kontzientziazteko eta beren parte-hartzea
eta inplikazioa bultzatzeko ekimena**

(2007-2009 EPEALDIA)



1. SARRERA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea emakumeen kontutzat hartzen da askotan. Izatez, hala izan zen hastapenetan, hirurogeita hamarreko hamarkadan emakumeetan bakarrik oinarrituta baitzeuden nazioarteko berdintasun-politika publikoak. *WID (women in development, emakumeak garapen-bidean)* zeritzen politika horiei. Ondoren, laurogeiko hamarkadan, ikuspegi berria nagusitu zen berdintasun-politiken diseinuan eta aplikazioan: *GAD delakoa (gender and development, generoa eta garapena)*. Horri esker, gero eta arreta handiagoa eman zitzaion gizonek sexuen arteko botere-erlazio bidegabeak zalantzan jartzearen eta aldatzearen aldetik izan dezaketenez zereginari.

Hala, Beijingen 1995ean emakumei buruz egindako IV. Mundu Konferentziaren harian onartutako deklarazioak eta ekintza-plataformak «adorea eman nahi die gizonei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko ekintza guztietan parte har dezaten». Ildo beretik, Nazio Batuen Batzar Orokorraren ohiz kanpoko bilkuren 23. aldiaren azken dokumentuak gizonek sexuen arteko berdintasuna sustatzeko erantzukizuna partekatu beharko luketela azpimarratzen du (dokumentuaren izenburua: *Emakumea 2000. urtean: sexuen arteko berdintasuna, garapena eta bakea XXI. menderako*).

Hala ere, gizonek eta mutikoen berdintasuna sustatzeari dagokionez duten funtzioari buruz eginiko lehendabiziko Gobernu arteko gogoeta eta eztabaida 2003an egin ziren, Brasilian, Emakumeak Aurrera Egiteko Nazio Batuen Dibisioaren aditu-bileran. Bestalde, 2004an atera zituzten gizonek eta mutikoen sexuen arteko berdintasuna lortzeari dagokionez duten zereginari buruzko nazioarteko ondorioak, Emakumeen Baldintza Juridikoen eta Sozialen Nazio Batuen Batzordearen 48. batzarraldian.

Bertako ondorioen artean, bi hauek aipa genitzake: Batzordeak onartu izana sexuen arteko aldeek (gizonen eta emakumeen arteko botere-desorekek) gizartearen esparru guztietan dirautela, eta sexuen arteko berdintasunak guztiei onurak ekarriko dizkietela adierazi izana (berdintasun ezaren eragin negatiboek gizarte osoari eragiten diotelako). Halaber, nabarmendu zuen gizonek eta mutikoen aldatu egin ditzaketela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko oinarritzakoak diren jarrerak eta harremanak, emakumeek ere giza eskubide guztiak errespetatuta izan ditzaten.

Gainera, Batzordeak Gobernuari honako neurri hauek hartzeko eskatu zien, besteak beste:

- Gizonek eta mutilek sexuen arteko berdintasuna bultzatzeko duten gaitasuna sustatzea eta indartzea.
- Eskolentzako, gazte- eta kirol-erakundeentzako eta hurrekin zein gazteekin lan egiten duten bestelako taldeentzako programak sortzea eta aplikatzea, sexuen arteko berdintasunaren esparruan jarrera positiboak sustatzeko.
- Gurasoentzako, tutoreentzako eta bestelako zaintzaileentzako hezkuntza-programak egitea, gizonek haurrak sexuen arteko berdintasunera bideratuta hezteko duten gaitasuna handitzeko bitartekoei eta moduei buruzko informazioa emateko.
- Gizonak parte hartzera adoretzea, beste pertsonak (adinekoak, minusbaliatuak eta gaixoak barne, eta, bereziki, haurrak eta beren kargura dauden senideak) zaintzeari eta haiei laguntza emateari dagokionez.
- Gizonek berdintasuna sustatzearen aldetik duten funtzioari buruzko informazio-kanpaina publikoak egitea.
- Gizonak arriskurik gabeko sexu- eta ugaltza-arduratsua hartzera bultzatzeko programak egitea eta ezartzea, haurdunaldi ez desiratuak eta sexu bidez transmititzen diren infekzioak saihesteko metodo eraginkorrak erabil ditzaten.
- Gizonak eta mutikoak indarkeria-mota guztiak prebenitzeko eta ezabatzeko parte-hartze aktiboa izan dezaten adoretzea, bereziki sexu-indarkeriariaren esparruari dagokionez (sexu-esplotaziorako salerosketa barne), eta salerosketa hori jasaten duten emakumeen eta neskatuen demanda ezabatzera bideratutako neurriak gogoan hartzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruko lidertza-postuetako gizonak akuilatzea, eta haiei babesa ematea.
- Gizonek eta mutikoek generoaren gaiaren esparruko ekimenetan parte hartzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko erakundeen mekanismoetan ordezkari izatea sustatzea.

Halaber, Batzordearen erabakiek agerian uzten dute berdintasun-politika integratuak bultzatzeko beharra, emakumeentzako eta gizonentzako politika paraleloak egotea ekiditeko. Alde horretatik, zera proposatzen dute: gizonei berriaz zuzendutako berdintasuna sustatzeko programak bat etortzea emakumeak indartzeko eta botere gehiagoz hornitzeko programekin, eta haien finantzaketaren kalterako ez izatea.

Halaber, gizonei zuzendutako programetan emakumeen erakundeek parte hartzea eskatzen dute.

Bestalde, Europar Batasunaren esparruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 2006-2010 epealdirako lan-planak (berdintasunerako bidaia-orri deritzona) xedatutakoaren arabera, «gizonak familia-erantzukizunak hartzera adoretu beharko lirateke, batez ere guraso- eta aitatasun-baimenez goza dezaten, eta baimen horiek izateko eskubidea emakumeekin parteka dezaten». Era berean, Enplegu, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileei buruz 2006 Bruselan egin zen Europako Batasuneko Kontseiluaren batzarrean (2767 zenbakiduna), hainbat ondorio atera zen gizonen eta berdintasunaren gaiaren gainean. Besteak beste, Kontseiluak aitortu egiten du, batetik, gizonei eta sexu-berdintasunari lotutako gai guztiak oraindik jorratu gabe daudela eta, bestetik, arlo hau bizitza profesionala eta pribatua uztartzetik harago doala. Horrez gain, Estatu kidei emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko egiturak, sektore publiko zein pribatuan, indartzeko premia adierazten die eta baita aipatu berdintasunaren alde gizonen parte hartzea areagotzea helburu duten ekimenei babesa ematearen beharra.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, gizonei berriaz zuzendutako neurriak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko proposamen orokorrean eta integralean txertatuta daude, nazioartean ezarritako arauetara jarraiki. Planteamendua Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Sustatzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago jasota, bai eta Gobernu Batzordeak 2006ko irailean onartutako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planean ere. Bere lehentasuneko helburuak emakumeen autonomia pertsonala bultzatzea eta haien egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea dira; helburu horiek erdiesteko, ezinbestekoak dira gizonen konpromisoa indartzeko neurriak, bertara bideratutako baliabideak kaltetu gabe.

Alde horretatik, ondorengo adierazten du IV. Planeko II. Ardatzak (emakumeak boterez hornitzea eta arlo soziopolitikoan duten partaidetza areagotzea):

«Beraz, emakumeak boterez hornitzea baliagarria da estrategia gisa, autonomiatik zein hiritartasun osotik abiatuta indibidualtasunez jokatzen duten pertsona bilaka daitezten. Halaber, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna erdiesteko, hura botere-erlazio hierarkikoak eteteen bakarrik lortuko baita, emakumeak alde batera utziko ez dituen eredu berria berreraikitzearen ondorioz.

Hala ere, populazioaren gainerako % 50a aipatutako prozesutik kanpo geldituz gero, zaila litzateke antolaketa sozialaren eredu berri ez-hierarkizatua eraikitzea. Hori horrela izanik, emakumeak boterez hornitzeaz gain, ezinbestekoa da zenbait formula eta gune antolatzea, gizonak banaka edo taldeka sentikorrak daitezten eta gogoeta egin dezaten. Gogoetarako gaia gaur egungo sistema patriarkalaren zuzentasuna, zilegitasuna eta iraunkortasuna litzateke alde batetik (sistema patriarkalak egiturazko mendekotasun-egoeran jartzen ditu emakumeak), eta sistemaren oinarrian kokatutako sexuaren araberako estereotipoek eta eginkizunek gizonen nortasunean dituzten eragin negatiboak buruzkoa bestetik (beren potentzialtasun eta gaitasun guztiak baliatzea eragozten edo zailtzen dien aldetik; ugalketarekin eta afektuekin erlazionatutakoak, bereziki).»

Gizonei berariaz zuzendutako aurreikuspenak, funtsean, IV. Planeko II. Ardatzean daude jasota (emakumeak boterez hornitzea eta arlo soziopolitikoan duten partaidetza areagotzea), bai eta III. Ardatzean ere (uztartzea eta erantzukidetasuna). Zera aurreikusten dute: batetik, gizon-taldeak sortzea, maskulinitasun-ereduaren aldaketa aztertu eta bultzatu dezaten, eta sistema berdintasun handiagoz hornitzera bideratutako lana egin dezaten; eta, bestetik, informazio-, sentikortze- eta trebakuntza-jarduerak egitea (kanpainak, tailerrak, jardunaldiak, ikastaroak, etab.). Helburu nagusiak bi lirateke: gizonak etxeko lanen esparruan dagokien erantzukidetasunaren inguruan kontzientziatzea, eta lizentziak, baimenak, eszedentziak eta jardunaldi-murrizketak eskatzeko motibatzea. Jarduera horiek guztiek otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 35 eta 3.1.c) artikuluen legezko babesak dute, eta honako bi puntu hauek aurreikusten dituzte, hurrenez hurren: «Euskal herri administrazioek gizonak etxeko lanen erantzukidetasuna hartzea sustatuko dute», eta «Emakumeen eta gizonen trataera desberdina ekarri arren, justifikazio objektibo eta arrazoitua duten neurriak ez dira sexuagatiko diskriminaziotzat hartuko, (...) gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan parte hartzea sustatzea oinarri dutenak, besteak beste».

Beraz, esparru juridikoa egokia da herri administrazioek gizonei berariaz zuzendutako ekimenak proposatzeko, batez ere ekimen horien helburuak gizonak gizarte justuagoa eta berdintasun-maila handiagokoa lortzeko bat egitea eta konpromiso aktiboa hartzea direnean. Konpromiso hori funtsezkoa da emakumeek bizitzaren zenbait esparrutan duten egiturazko berdintasun eza amaiarazteko eta, zehazki, gaur egungo gaitz handien arteko bat, hots, emakumeen aurkako indarkeria matxista, errotik kentzeko.

Gainera, bizikidetzaren eredu berriak ez die horiei bakarrik mesede egiten, gizarte osoari baizik, gizonei barne. Izan ere, gaur egungo gizarte-sistema patriarkalak gizonei talde gisa pribilegioak ematen dizkien arren (diru-sarrerak, botere-maila eta esparru publikoko autoritate-maila handiagoak, eta nagusiki emakumeek egindako etxeko lanen eta zaintza-lanen onurak jasotzea, besteak beste), sistemak zereginak eta

esperantzak sexuen arabera modu zurrunean bereizteak kostuak ere eragiten dizkie gizonen. Gizonen bizi-itzaropena txikiagoa da emakumeena baino, eta joera handiagoa izaten dute droga-mendekotasuna, zirkulazio-istripuak, lan-istripu larriak, indarkeriazko heriotza eta kartzelaratzeari jasateko. Gizonen, gainera, familiak ekonomiaren aldetik mantentzeko sozializatu dituzten aldetik, presio handiagoa jasaten dute lanaldia luzatzeko. Hala, nagusiki produkzioaren munduari eskaintzen diote beren bizitza, eta ez dituzte bestelako zenbait potentzialtasun eta gaitasun garatzen, ugalketaren eta afektuen munduarekin erlazionatutakoak nagusiki. Hautemangarriak dira, halaber, nagusi den eginkizun sozialetik urruntzen diren eta tradizionalki «femeninotzat» hartu izan diren portaerak eta zereginak publikoki hartzeri ausartzen diren gizonen jasandako onarpenik eza eta, zenbaitetan, gutxiespen soziala.

Azken finean, gure gizarteak, emakumeak baztertzeaz gain, atsekabea eragiten die hala emakumeei nola gizonen. Hori horrela izanik, mende honetako erronka eredu sozial berri demokratikoago, justuago eta berdintasunezkoagoa eraikitzea izan beharko litzateke. Hala, pertsona guztiak esparru publikoan zein pribatuan beren gaitasun guztiak garatzeko eta erabakiak sexuaren araberako tradiziozko zereginen eta estereotipoen ezarritako mugarik gabe hartzeko gai izan beharko lirateke, eta gizarteak berdin aintzatetsi, baloratu eta sustatu beharko lituzke emakumeen eta gizonen jarrerak, itzaropenak eta beharrak. Horretarako, funtsezkoa da gero eta gizon gehiago honako ekintza hauek aurrera eramateko prest izatea: maskulinitasaren tradiziozko ereduak zalantzan jartzeko, sistema patriarkalak ekar diezazkiekeen pribilegioei uko egiteko, beren buruak gaizki ulertutako maskulinitasaren zamatik aske uzteko eta pertsona askeagoek eta libreagoek osatutako gizarte berria lortzeko emakumeekin batera aktiboki lan egiteko. Izan ere, berdintasunak pertsonak askeago eta osoago bilakatzen gaitu, gure bizi-horizontea hedatzea ahalbidetzen digu, eta pertsona hobek bilakatzen gaitu. Ondorioz, gizonak gizondu egiten ditu.

2. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA.

Gure Erkidegoan egon badaude zenbait esparrutatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko kausari atxiki zaizkien gizonak, zalantzarik gabe. Gizon horiek emakumeen eskubideak intelektualki eta publikoki defendatzeko konpromisoa hartu dute: idazkiak, adierazpen publikoak eta abar sortu dituzte, kanpainetan eta jardunaldietan parte hartu dute, gogoeta-sareak eta gogoeta-taldeak sortu dituzte eta haietan parte hartu dute, etab.

Gainera, askoz ugariagoak dira teoriaren ikuspegian sexuen arteko berdintasunaren alde agertzen diren gizonak. Alde horretatik, besteak beste honako datu hauek erakusten ditu Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak Soziologia Azterketetarako Kabineteak 2004an egindako *EAEko biztanleriaren iritziak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz* ikerlanak:

- Gizonen % 77k (eta emakumeen % 86k) nahikoa garrantzi edo garrantzi handia ematen dio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari.
- Gizonen % 79k (eta emakumeen % 88k) aipatutako berdintasunaren aldeko neurri gehiago hartu beharko liritekeela uste du.
- Gizon gehienek ustez, honako jarrera hauek hartzea eraginkorra da sexuen arteko berdintasun eza murrizteko edo desagerrarazteko: etxeko lanak partekatzea eta, hala, seme-alabei etsenplu ematea (% 94); emakumeak beren parekotasun hartzea eta haien nahiak, iritziak, lanak etab. aintzat hartzea (% 93); emakumeenganako errespetu eza adierazten duten kideen eta lagunaren portaeren aurrean kritiko agertzea (% 92); berdintasunak gizonentzat ere onurak dituela onartzea (% 88); eta emakumeen eskubideak aktiboki defendatzea (% 89).

Hala ere, iritzi horiek ez dira islatzen gizonen sexuen arteko berdintasunaren esparruan izandako parte-hartzean eta programetan (parte-hartzea oso txikia da oraindik ere), ezta etxeko lanen eta zaintzaren esparruetan izandako erantzukidetzazko jarreretan ere (asko falta da gure etxeetan errealitate hori nagusi izateko).

Gizonen berdintasunaren esparruko sentikortze- eta trebakuntza-jardueretan izandako parte-hartzeari buruzko datuek adierazitakoaren arabera,

- 2007an berdintasunerako Naro Foroaren azken edizioan parte hartu duten pertsonen %9a osatzen dute gizonen¹. Foroa Autonomia Erkidegoan sentikortze-jarduerara gehien biltzen dituen ekimena da.
- 2006an eta 2007an HAEEK euskal administrazio publikoetako langileen trebakuntzaren esparruan egindako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko ikastaroetan parte hartu duten ikasleen % 15a bakarrik dira gizonaek.

¹ «Naro: Berdintasunerako Foroa», 2004az geroztik urtero egiten den ekimena da. Emakunde sustatzen du, instituzio, erakunde eta talde askoren partaidetzarekin, eta bere helburua horiek guztiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egindako lana biltzea, ezagutaraztea eta indartzea da.

- Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterraren eta Deustuko Unibertsitateak antolatzen duen Emakumeen Kontrako Indarkerian Esku Hartzeko Espezializazio Masterraren azken edizioetako ikasleen % 8a dira gizonaek.

Bestalde, emakumeen eta gizonen etxeko lanen, zaintzaren eta pertsonak zaintzeko erabilitako baimenen, eszedentzien eta lanaldi-murrizketen banaketari buruzko estatistikei dagokienez, sexuen arabera aldeak nabarmenak dira:

- Gizonak ordu bat eta 32 minutu ematen dituzte, batez beste, etxeko lanak egiten eta pertsonak zaintzen, eta emakumeek, aldiz, 3 ordu eta 50 minutu².
- Eusko Jaurlaritzak 2006an pertsonak zaintzeko lanaldia murrizteko eta eszedentzia hartzeko emandako laguntzen onuradunen % 6,1 osatzen dute gizonak³.
- Gizonen % 3,5ak bakarrik partekatu du bere bikotearekin amatasun/aitatasun-baimena 2006an⁴.

Hala ere, gizonak sentikortzeko eta trebatzeko jardura horietan duten presentzia txikia ez zaio gaiari buruz duten interes txikiari bakarrik zor. Beste faktore batzuek ere lagun dezakete egoera hori azaltzen, eta etorkizunean proposatuko diren jarduerari begira aintzat hartzea komeni da. Esate baterako, aipatutako jarduerak (adibidez, berdintasun-politikak orokorrean) emakumei zuzendu zaizkie nagusiki, emakumeen taldea delako gaur egungo sistema patriarkalaren ondorio negatiboak modu zuzenenean jasaten ari dena. Agian horregatik ez dira gizonak behar bezainbeste kontuan hartu kontzientziazte- eta trebakuntza-jarduerak diseinatzean (edukiak, irakasleak, hedabideak, etab.). Izan ere, esparru hori oso feminizatuta egoteaz gain, aski hedatuta dago gai horiek emakumeenak eta emakumeentzat direla dioen estereotipo soziala.

Ildo berean, etxeko lanen eta zaintza-lanen kasuan emakumeen eta gizonen arteko banaketari buruzko estatistikak interpretatzeko garaian, eta, batez ere, pertsonak zaintzeko baimenei, eszedentziei eta lanaldi-murrizketei dagozkienak, kontuan hartzekoa da nork bereak dituen ugalketa-lanak (sozialki eta ekonomikoki ez

²Iturria: *Denboraren Erabilieraren Inkesta*. Eustat. 2003.

³ Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailaren datuen arabera, 2002an laguntza horiek ezarri zituztenetik horiek jasotzen dituzten gizonen ehunekoaren igoera ez da ehuneko puntu batera iristen; izan ere, 2002an % 5,2koa izan zen, eta 2006an % 6,1ekoa. Eta, hori, hasiera batean uztartze-neurri horien onuradunak gizonak izanez gero zenbateko handiagoak aurreikusi ziren arren. Aldi horretan 1.500 gizon inguru izan ziren uztartze-neurrien onuradun.

⁴Iturria: *Lan Estatistiken eta Gizarte Gaien Urtekaria*. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. 2007.

baloratuak, baina ezinbestekoak gizarte osoak normaltasunez funtziona dezan) etxean beste norbaitek egiteak suposatzen duen pribilegioa eta erosotasuna galtzearen aurkako erresistentzia, baina bestelako faktoreak ere bai. Sexuaren araberako tradiziozko zereginen eta estereotipoen eraginaren ondorio gisa, sozialki «normala» iruditzen zaigu emakumeek oraindik ere ugalketa-lanaren zamaren zatirik handienari eustea, horrek profesionalki kaltea eragin ahal dien arren. Beraz, gizarteak eta enpleguaren munduak presio handiagoa egiten dute emakumeak izan daitezen pertsonak zaintzeko baimenak, eszedentziak eta lanaldi-murrizketak eskatzen dituztenak; enpresak ez dira hain ulerkorrek izaten horiek gizonak eskatzen dituztenean. Horrez gain, kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldea dela-eta, askotan familiek ezin diotela familiaren diru-sarreraren iturri nagusiari (gizonaren soldata, gehienetan) uko egin, aldi baterako bada ere. Alde batera utz ezin daitekeen beste gai bat emakumeen borondatea da. Izan ere, bikotekideek askotan ez dutenez baimenak, eszedentziak eta lanaldi-murrizketak batera hartzeko aukerarik izaten, emakumeek eskatu nahi izaten dituzte horiek. Eta horrek ondorio negatiboak dakarzkie, bai garapen profesionalaren ikuspegitik, bai harengandik eratorritako eskubideen aldetik (adibidez, enpresariak nakar izan ohi dira karrera profesionala etengo duela dirudien norbait kontratatzeko garaian).

Edonola ere, teorian gizon gehienak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde ageri diren arren, praktikan oraindik ez da behar adina inplikazio lortu aipatutako berdintasuna lortzeko. Hala ondoriozta daiteke gizonak emakumeekin alderatuta gaiaren inguruko sentikortze- eta trebatze-jardueretan eta etxeko lanen eta pertsonen zaintza-lanen esparruan izandako parte-hartze eskasetik.

Horregatik guztiagatik, gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez parte-hartze eta inplikazio handiagoa izan dezaten, eta aipatutako helburua lortzeko efektu biderkatzailea izango duen nahikoa masa kritikoa sortzeko, zenbait helburu eta neurri proposatuko ditugu jarraian, berdintasuna bultzatzeko euskal administrazio publikoek egiten ari diren ekintzen osagarri eta ekimena hedatzen den heinean bertan txerta daitezkeen bestelako neurriak kaltetu gabe. Aipatutako helburuak eta neurriak ondorengo bi ideietan oinarrituta: batetik, sentikortasuna eta trebakuntza pentsamoldea eta portaera aldatzeko giltza direla, eta, bestetik, gizonak sexuen arteko berdintasunaren aldeko kontzientziarioa eta konpromisoa handitzeko berariazko neurriak proposatzeak portaera-eredu soziokulturalen aldaketaren esparruan aurrerapauso handiagoa ematea erraztuko duela. Aldaketa ezinbestekoa da emakumeen egiturazko berdintasun ezeko egoeraren

prozesuak edo faktoreak zuzentzeko, eta gizaki gisa garatzeko dauzkaten aukerak indartzeko (bai emakumeenak, bai gizonenak).

3. HELBURUAK ETA NEURRIAK.

1. helburua: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sentikortutako gizonen kopurua handitzea.

Neurriak:

- 1.1 Sexuen arteko berdintasunaren esparruan gizonei berariaz zuzendutako kontzientziazio-kanpainak egitea. Kanpainak gizonen ekarpenen garrantziari eta berdintasunak gizonei ekar diezazkiekeen onurei buruzkoak izango dira, eta gizonek emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez jarrera aktiboa izatea erraztea ere izango dute helburu.
- 1.2 Maskulinitasunari eta eguneroko bizitzari buruzko nazioarteko batzarra antolatzea, Sare Topaketen esparruan.
- 1.3 Maskulinitasuna Berdintasunerako Naro Foroaren lehentasunezko eduki tematikoei erantzea.
- 1.4 Berdintasunaren aldeko gizonen taldeak eta tailerrak sustatzeko diru-laguntzak ematea.
- 1.5 Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen karta egitea, zabalpena ematea eta gizon gehiago hari atxikitzea.
- 1.6 Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen kartaren edukiak lantzea, eskoletan, gazteen elkarteetan, kirol erakundetan eta gizon gazteez eta umeez arduratzen diren taldeetan. Hori guztia, haiengandik berdintasunaren aldeko jarrera positiboak lortze aldera.
- 1.7 *www.euskadi.net* web gunean gizonei eta sexuen arteko berdintasunari buruzko atari espezializatua sortzea.
- 1.8 Gizonentzako berariazko sentikortze-programa martxan jartzea, maskulinitasunarekin eta eguneroko bizitzarekin erlazionatutako gaiak (osasuna eta zainketak, erantzukidetasuna, aitatasuna, sexualitatea, indarkeria eta mikromatxismoak, e.a.) modu errazean eta dibulgatzailean lantzeko.
- 1.9 Aitei, lehen seme-alabak jaiotzen direnean, eskuliburu bat eta bestelako sentikortze-materialak ematea. Material horiek osatuko duten materialek zaintzari eta aitatasunari buruzko zenbait alderdi praktikori buruzko jarraibideak emango dituzte, eta, halaber, aitaren irudiak balore ez-sexistak transmititzeko garaian duen eraginari buruzko gogoeta egiteko gakoak emango dituzte.

1.10 Lehendakaria buru duen ekitaldi publiko bat antolatzea, Gizonduz ekimenean nolabaiteko parte-hartzea izan duten pertsonen eskerrak emateko.

Parte hartze zuzenagoa duten erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.
- Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea.

Esperotako emaitzak:

- Berdintasunerako Naro Foroan parte hartzen duten gizonen ehunekoa bikoiztea⁵.
- Berdintasunaren aldeko eta emakumeen indarkeriaren aurkako euskal gizonen kartari 10.000 gizon atxikitzea lortzea.
- Berriazko sentikortze-programan 1.000 gizonen parte hartzea lortzea.

2. helburua: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.

Neurriak:

- 2.1 Ekintza positiboak aurrera eramatea, gizonen erraztasun handiagoa izan dezaten HAEEK euskal administrazio publikoetako langileentzako antolatutako trebakuntza-ikastaroetan parte hartzeko.
- 2.2 Ekintza positiboak aurrera eramatea, gizonen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan espezializatutako masterrak edo bestelako unibertsitate-graduondokoak eskuragarriago izan ditzaten.
- 2.3 Gizonentzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko trebakuntza-programa bat martxan jartzea, besteak beste ondorengo gaiak landuko dituenak: genero harremanak eta maskulinitasun berriak, eta maskulinitasun tradizionalak dakartzan ondorioak osasunean, zaintzan, sexualitatean, indarkerian eta lege-hausturetan, etxeko lanean erantzukidetasunari dagokionez eta arriskua hartzearekin lotutako jarrerari dagokienez.
- 2.4 Gizonduz ekimenaren, bere emaitzen eta bertan sortutako dibulgazio- eta trebakuntza-materialen berri ematen duen dokumentu bat egitea eta zabaltzea.

⁵ Emakunderen datuen arabera, 2007an Berdintasunerako Naro Foroaren azken edizioan parte-hartzaileen % 9 osatzen dute gizonen.

Parte hartze zuzenagoa duten erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.
- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE).
- Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea.

Esperotako emaitzak:

- HAEEK antolatuta euskal administrazio publikoetako langileentzako trebakuntza-ikastaroak jaso dituzten ikasle guztien artetik gizonei dagokien ehunekoa bikoiztea⁶.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean berezitatutako masterretan edo bestelako unibertsitate-graduondokoetan gizonezko ikasleei dagokien ehunekoa bikoiztea⁷.
- Berriazko trebakuntza-programan 100 gizonek parte hartzea lortzea.

3. helburua: Gizonek etxeke lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna handitzea⁸.

Neurriak:

3.1 Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako langileei erditzeko prestakuntza-ikastaroetara bertaratzeko baimena ematea (amarenarekin bateragarria).

3.2 Gizonduz ekimeneko sentikortze- eta trebakuntza-programetan parte hartu duten gizonei (Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean edota bere erakunde autonomoetan lan egiten dutenei) aitatasun-baimena hedatzea.

⁶ HAEEren datuen arabera, erakundeak 2006ko urritik 2007ko urrira bitartean berdintasunari buruz antolatutako ikastaroek izandako ikasleen guztizko kopuruaren % 15 osatzen dute gizonak.

⁷ Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Deustuko Unibertsitatearen datuen arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean berezitatutako masterretako edo bestelako unibertsitate-graduondokoetako ikasleen % 5 osatzen dute gizonak.

⁸ Helburu hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzak laguntza ekonomiko handiagoak ematen ari da 2002az geroztik Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren bidez, pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketak eta eszedentziak hartzen dituzten gizonei, lan- eta familia-bizitza uztartzeko hartutako neurrien esparruan. Gaur egun uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuak arautzen ditu neurri horiek.

3.3 Erditze-baimena bi edota lau asterako eskatu duten Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako gizonetzko langileei astebetetz edota bi astez hedatzea, hurrenez hurren.

3.4 Gizonduz ekimeneko sentikortze- eta trebakuntza-programetan parte hartu duten gizonei (Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan lan egiten dutenei) gaixotasun kronikoa edota mugikortasun-arazoak dituzten senideak zaintzeko baimenaren ordu-kreditua hedatzea.

3.5 Aurreko ataletan aipatutako neurriak edota gizonak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan erantzukide izatera bideratutako neurriak gainerako erakunde publikoetan eta sektore pribatuan ezartzea sustatzea.

Parte hartze zuzenagoa duten erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaritzak.
- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea.

Esperotako emaitzak:

- Gizonek etxeko lanei eta zaintza-lanei eskainitako denbora % 20 handitzea⁹.
- Bikotekidearekin amatasun/aitatasun baimena partekatu duten gizonen ehunekoa bikoiztea¹⁰.
- Eusko Jaurlaritzak pertsonak zaintzearren lanaldia murrizteko eta eszedentzia hartzeko emandako laguntzen onuradunen artean gizonei dagokien ehunekoa % 10era igotzea¹¹.

⁹ Eustat-en *Denboraren Erabilerari Buruzko Inkesta, 2003ko datuen arabera*, gizonek ordu bat eta 32 minutu eskaintzen dizkiote, batez beste, etxeko lanei.

¹⁰ Gizarte Gaietarako Ministerioaren arabera (*Lan Estatistiken eta Gizarte Gaien Urtekaria*), gizonen % 3,5ak partekatu du 2006an amatasun/aitatasun baimena bikotekidearekin.

¹¹ Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak 2006an pertsonak zaintzeko emandako lanaldi-murrizketen eta eszedentzien guztizko kopuruaren % 6,1 dagokie gizonei. Hori guztia, 2002az geroztik uztartze-neurri horiek gizonek erabiltzen dituztenean zenbatekoak handiagoak izatea aurreikusitako izan den arren. Hala, onuradunen artean gizonei dagokien ehunekoa % 5,2koa izan zen 2002an, eta % 6,1ekoa 2006an.

4. IRAUNALDIA ETA KRONOGRAMA.

Ekimenaren iraunaldia 2007ko azarotik 2009ko abendura artekoa izango da, honako kronograma honi jarraiki:

NEURRIAK	2007	2008	2009
1.1 Gizonei berariaz zuzendutako kontzientziazio-kanpainak egitea, pentsamoldea aldatzeko eta berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarrera aktiboa hartzeko.	X	X	X
1.2. Maskulinitasunari eta eguneroko bizitzari buruzko nazioarteko batzarra antolatzea.	X		
1.3 Maskulinitasuna Berdintasunerako Naro Foroaren edukietan txertatzea.		X	X
1.4 Berdintasunaren aldeko gizonen taldeentzako eta tailerrentzako diru-laguntzak ematea.		X	X
1.5 Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen karta egitea, zabalpena ematea eta gizon gehiago hari atxikitzea lortzea.		X	X
1.6 Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen kartaren edukiak lantzea, eskoletan, gazteen elkarteetan, kirol erakundetan eta gizon gazteez eta umez arduratzen diren taldeetan.		X	X
1.7 www.euskadi.net web gunean gaian berezitutako ataria sortzea.		X	X
1.8 Gizonentzako berariazko sentikortze-programa martxan jartzea.		X	X
1.9 Aitei eskuliburu bat eta sentikortze materialak ematea, beren lehen haurra jaiotzen denean.		X	X
1.10 Ekimenean parte hartzen dutenei eskerrak emateko ekitaldi publikoa antolatzea.			X
2.1 Ekintza positiboak aurrera eramatea, HAEK berdintasunaren esparruan antolatutako ikastaroak gizonentzat eskuragarriago egon daitezen.		X	X
2.2 Ekintza positiboak aurrera eramatea, gizonen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko masterrak eta graduondokoak eskuragarriago izatea sustatzeko.		X	X
2.3 Gizonentzako berariazko trebatze-programa martxan jartzea.		X	X
2.4 Esperientziaren berri ematen duen dokumentua egitea eta zabalpena ematea.			X
3.1 Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako langileei erditzeko prestakuntza-ikastaroetara bertaratzeko baimena ematea (amarenarekin bateragarria).		X	X
3.2 Gizonduz ekimeneko sentikortze- eta trebakuntza-programetan parte hartu duten gizonen (Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean edota bere erakunde autonomoetan lan egiten dutenei) aitatasun-baimena hedatzea.		X	X
3.3 Bi edota lau asteko erditze-baimena hartu duten EAEko Administrazioako langileen baimena astebetetz edo bi astez luzatzea, hurrenez hurren.		X	X
3.4 Ekimenaren sentikortze- edo trebatze-programetan parte hartu duten gizonen gaixotasun kronikoa edota mugikortasun-arazoak dituzten senideak zaintzeko baimenaren ordu-kreditua hedatzea.		X	X
3.5 Gainerako erakunde publikoetan eta sektore pribatuan aurreko ataletan aipatutako neurriak ezartzea sustatzea, eta/edo gizonak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan erantzukide izatera bideratutako bestelako neurriak.	X	X	X

5. LAGUNTZA ETA SUSTAPEN EGITURAK.

Ekimenaren laguntza- eta sustapen-egiturak bi dira: Jarraipen Batzordea eta Idazkaritza Teknikoa.

Jarraipen Batzordea.

Ekimena aurrera joan eta hedatzen den neurrian bestelako erakundeen esku hartzea gerta badaiteke ere, printzipioz, Jarraipen Batzordea ekimenean parte hartze zuzenago bat duten erakundeetako ordezkariak osatzen dute. Parte hartzen duten erakundeak honakoak dira: Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza; Ogasun eta Herri Administrazio Saila; Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea; eta Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea. Bere funtzioak honakoak dira, funtsean: ekimena gizarteratzea eta beste erakunde eta sektoreen babesa eta lankidetzat bilatzea, ekimenaren martxaren aldizkako jarraipena egitea, ekimenaren helburuak betetzeko eta emaitzak ebaluatzeko egokitzat hartzen diren egokitzapenak edo aldaketak proposatzea, eta ekimenaren emaitzak ebaluatzea..

Idazkaritza Teknikoa.

Laguntza teknikoa kontratatuko da ekimenaren alderdi teknikoaren ardura hartzeko. Gizonekin berdintasunaren alde lan egin izan duten pertsonak emango dute laguntza hori.

6. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.

Jarraipen Batzordeak egingo du ekimenaren jarraipen-lana, hura behar bezala egiten ari direla bermatzeko. Bilerak gutxienez sei hilabetetik behin eginez egingo du lan hori Jarraipen Batzordeak. Ekimenaren helburu bakoitzeko esperotako emaitzetan oinarrituta azken ebaluazioa egiteko erantzukizuna ere Jarraipen Batzordeak izango du.

Gainera, berriazko ikerketa egitea aurreikusi dugu, ekimenaren sentikortze- eta trebatze-programetan parte hartu duten gizonen pentsamoldean eta portaeran izaniko aldaketak ebaluatzeko batetik, eta haien eta programetan parte hartu ez duten gizonen arteko aldeak aztertzeko bestetik.

Gasteiz, 2007ko azaroaren 2a.